

EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA
DEPARTAMENTO PROMOCIÓN
ECONÓMICA

Aurkibidea

Indice

	<u>Or. / Pág.</u>
Txostena	
Memoria	3
Sarrerren aurrekontua	
Presupuesto de Ingresos	
– Aurrekontuen Erkaketa Sailka eta Kapituluka	
Comparación Presupuestos por Departamento y Capítulos	19
– Ekonomi Garapena Sailka	
Desarrollo Económico por Departamentos.....	20
Gastuen aurrekontua	
Presupuesto de Gastos	
– Gastuen Sailkapen Organikoa	
Clasificación Orgánica de Gastos	22
– Programen araberrako gastu-sailkapena	
Clasificación programática de Gastos	23
– Aurrekontuen Erkaketa Sailka eta Kapituluka	
Comparación Presupuestos por Departamento y Capítulos	24
– Aurrekontuen Erkaketa Ekonomi Garapena	
Comparación Presupuestos Desarrollo Económico	25
– Saila, Gastu-Arloa eta Egitarauen Arabera	
Por Departamento, Área de gasto y Programa	32
– Partida Izendunak	
Partidas Nominativas.....	33
– Ekonomi Garapena Sailka	
Desarrollo Económico por Departamentos.....	134
– Garapena egitarauen arabera	
Desarrollo por Programas.....	140
– Transferentzia Arruntak	
Transferencias Corrientes	230
– Urteaniztun Programak	
Programas plurianuales	234

TXOSTENA
MEMORIA

Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Mundu osoan ziurgabetasuna handia den honetan, are handiagoa AEBk ezarritako muga-zergak eta tentsio geopolitikoak direla-eta, lurraldearen lehiakortasun-gakoetan jartzen dugu arreta oraindik ere: ekintzaileak; enpresak sortzea; enpresen eta enpresa-sare osoaren digitalizazioa eta jasangarritasuna; ekosistema berritzaile bat sustatzea, talenturako eta inbertsiorako erakargarria; lurraldearen garapen orekatua, eta Bizkaia kanpoan proiektatzea.		En un contexto de incertidumbre mundial acrecentado por los aranceles impuestos por EEUU y tensiones geopolíticas seguimos poniendo en foco en las claves de competitividad del territorio: las personas emprendedoras, la creación de empresas, la digitalización y sostenibilidad de las empresas y la del conjunto del tejido empresarial, el impulso de un ecosistema innovador y atractivo para el talento y la inversión, el desarrollo equilibrado del territorio y la proyección exterior de Bizkaia.
ETEEi, ekintzaitzari, enplegarritasunaren sustapenari eta, oro har, gure lurraldeko sare ekonomiko osoari laguntzeko politika publikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren bereizgarri dira. Politika horiei esker, urteetan zehar kalitatezko enpleguak sortu eta mantendu eta gure gizartearen ongizate-mailak mantendu ahal izan dira. Agerian geratu da politika horiek oso garrantzitsuak direla, batez ere aldaketak, zailtasunak eta ziurgabetasuna dauden uneetan.		Las políticas públicas de apoyo a las pymes, al emprendimiento y al fomento de la empleabilidad, y en general, a todo el tejido económico de nuestro territorio, son seña de identidad de la Diputación Foral de Bizkaia. Políticas que han permitido crear y mantener a lo largo de los años empleos de calidad y los niveles de bienestar de los que disfruta nuestra sociedad y que demuestran su importancia en momentos de cambios, dificultad e incertidumbre.
Hori guztia Bizkaiko gizartearen ezaugarri diren balioetan oinarritutako gobernatzeko moduari esker izan da posible, hala nola gure lankidetzaren tradizioa, gure erresilientzia, elkartasuna, ahalegin- eta lan-gaitasuna, eta edozein zailtasun gainditzeko ahalegina.		Todo ello sustentado en un modo de gobernanza basado en los valores que caracterizan a la sociedad de Bizkaia, como nuestra tradición de colaboración, nuestra resiliencia, solidaridad capacidad de esfuerzo y trabajo, y empeño por superar cualquier dificultad.
Bizkaiko garapen sozioekonomikoaren aldeko ahalegin hori guztia gure lurraldearen barruko eta kanpoko ikuspegiekin osatzen da.		Todo este esfuerzo por el desarrollo socioeconómico de Bizkaia se complementa con las visiones hacia dentro y hacia fuera de nuestro Territorio.
Kanpoko ikuspegia, mundu global batean bizi garelako, zeinean presentzia, ikusgaitasuna eta espezializazioa ekonomia bizkortzea ahalbidetzen duten palanketako bat baitira. Horrexek bultzatzen ditu Bizkaia kanpoan sustatzeko jarduketak.		Hacia fuera porque vivimos en un mundo global en el que la presencia, la visibilidad y la especialización son una de las palancas que permiten la aceleración de la economía. Es esto lo que impulsa el conjunto de actuaciones de promoción de Bizkaia en el exterior.
Eta barruko ikuspegia, lurralde osoaren hazkunde orekatuaren bidez bakarrik lortuko dugulako Bizkaia kohesionatua eta orekatua izatea.		Y hacia dentro porque solo con un crecimiento equilibrado de todo el Territorio lograremos una Bizkaia cohesionada y equilibrada.



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Bizkaia urte erabakigarriei egin behar die aurre gizarte gisa izango duen etorkizunerako. Urte horietan zehar, jarduketa berriak abiarazi beharko dira, trantsizio demografiko-sozialetik, energetiko-ingurumenekotik eta teknologiko-digitaletik eratorritakoak, 2030 Agendarekin eta garapen jasangarrirako helburuekin bat eginda eta konprometituta, betiere erronkak eta desafioak aukera bihur daitezkeelako uste osoan eta gure gaitasunetan konfiantza izanik, industria-enpresa eta zerbitzu aurrerratu berriak sortzeko, zeinak irtenbideak ekarriko dituzten energiaren, ekonomia zirkularraren edo ekonomia digitalaren eremu estrategikoei dagokienez. Talentua atxiki eta erakarri behar dugu; emakumeek enpresa eta erakundeetan duten zeregina indartu behar dugu, batez ere erantzukizuneko postuetan; gure ETEek nazioartean duten presentzia handitu behar dugu, eta digitalizazioaren aurrerapenak arin eta gogotik txertatu behar ditugu. Hori guztia sektore ekonomiko guztietara iritsiko den lehiakortasun jasangarritik abiatuta eta gero eta kohesionatuagoa izango den lurralde baterantz aurrera eginez. Horregatik guztiagatik, 2023-2027 legegintzaldian, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko pertsona eta enpresekin duen konpromisoa berretsi du, elkarrekin aurre egin beharreko erronka eta desafioei erantzuten jarraitzeko, kalitatezko enpleguak sortzen jarraitzeko eta lehiakortasun-politikak garatzen jarraitzeko, Bizkaiko gizarte osoaren ongizatearen zerbitzura, inor ahaztu gabe. Konpromiso horiek Bizkaia Denontzat deritzon agintaldiko planean daude jasota.		Bizkaia afronta, unos años cruciales para su futuro como sociedad, en los que deberán adoptarse nuevas actuaciones, derivadas de las transiciones demográfica-social, energética-medioambiental y tecnológica-digital, alineándose y comprometiéndose con la Agenda 2030 y sus Objetivos de Desarrollo Sostenible, desde el convencimiento de que podemos convertir los retos y desafíos en oportunidades, y la confianza en nuestras capacidades, generando nuevas empresas industriales y de servicios avanzados que aporten soluciones en campos estratégicos como la energía, la economía circular o la economía digital. Necesitamos retener y atraer talento, reforzar el papel de las mujeres en las empresas y organizaciones, sobre todo en los puestos de responsabilidad, impulsar mayor presencia internacional de nuestras pymes incorporar los avances de la digitalización de forma rápida y decidida. Y todo ello, desde una competitividad sostenible que llegue a todos los sectores económicos y avance hacia un territorio cada vez más cohesionado. Por todo ello, en la legislatura 2023-2027, la Diputación Foral de Bizkaia ha reafirmado su compromiso con las personas y empresas de Bizkaia, para que, juntas y juntos, sigamos encontrando respuestas ante los retos y desafíos que enfrentamos, sigamos creando empleos de calidad y desarrollando políticas de competitividad al servicio del bienestar de toda la sociedad de Bizkaia, sin dejar a nadie atrás. Compromisos que se ven reflejados en el Plan de Mandato Bizkaia Denontzat.



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkairako sustapen ekomikoko politika publikoak diseinatu eta garatzeaz arduratzen den aldetik, 2023-2027 legegintzaldirako esparru estrategiko berri bat egin zuen, egungo testuinguru ekonomiko eta sozialera egokitua, Bizkaia lurrean berritzaile, talentudun, erakargarri, ireki, konektatu eta orekatu gisa duen posizionamendua indartzeko. 2023-2027 legegintzaldirako esparru estrategikoa erakundeen arteko lankidetzatik eta lankidetzako publiko-pribatutik abiatuta garatzen ari da, eta bost ardatz estrategikoren inguruan dago taxututa: • Bizkaia, talentuaren aldeko konpromisoa. • Ekintzaitza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren eragilea gisa. • Industria eta zerbitzu aurreratuak: lehiakortasun jasangarriaren aldeko apustu sendotua. • Bizkai orekatua eta kohesionatua. • Bizkai irekia eta erakargarria. Ekonomia Sustatzeko Sailak ezinbestekotzat jotzen du Bizkaiko enpresa-elkartekin eta enprekin batera hasitako bidean asko aurrera egitea, pertsonetan, konfiantzan, konpromisoan, partaidetzan eta enpresa-jasangarritasunean oinarritutako enpresa-estilo berria sortzeko. Aurrerapen hori ezinbestekoa da talentua atxikitze, erakartzeko eta kudeatzeko; izan ere, parte-hartzea sustatzen duten eta soldata lehiakorrek eta lan-baldintza malguagoak eskaintzen dituzten eta telelanerako eta lana eta familia bateragarri egiteko aukera ematen duten enpresa jasangarrien aldeko apustua egin nahi da. 2023-2027 legegintzaldirako esparru estrategiko berri horrek baliabide espezifikoak jartzen ditu Bizkairako estrategikoak diren industria-proiektuak finkatzeko eta bultzatzeko, jardura ekonomikorako lurzorua garatzeko eta proiektu horiek beharko dituzten profesionalak erakartzeko eta atxikitze.	El Departamento de Promoción Económica como responsable del diseño y desarrollo de políticas públicas de promoción económica para Bizkaia elaboró el Marco Estratégico 2023-2027, adecuado al contexto económico y social actual, y guiado por el objetivo de fortalecer el posicionamiento de Bizkaia como territorio innovador, con talento, atractivo y abierto, conectado y equilibrado. Marco Estratégico 2023-2027 que se desarrolla desde la colaboración interinstitucional y la colaboración público-privada y que se plantea en torno a cinco ejes estratégicos: • Bizkaia, compromiso por el talento. • Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia. • Industria y servicios avanzados: una apuesta reforzada por la competitividad sostenible. • Bizkaia, equilibrada y cohesionada. • Bizkaia, abierta y atractiva. El Departamento de Promoción Económica considera imprescindible, avanzar de forma significativa en el camino ya iniciado, junto con las asociaciones empresariales y las empresas de Bizkaia para generar en Bizkaia un nuevo estilo de empresa basado en las personas, la confianza, el compromiso, la participación y la sostenibilidad empresarial. Avance que se considera imprescindible para la retención, la atracción y la gestión de talento ya que éste apuesta por las empresas sostenibles, que promuevan la participación y que ofrezcan salarios competitivos y condiciones laborales más flexibles, que permitan el teletrabajo y la conciliación laboral y familiar. Este nuevo Marco Estratégico 2023-2027 destina recursos específicos para el arraigo e impulso de proyectos industriales estratégicos para Bizkaia, el desarrollo de suelos para actividad económica, así como para la atracción y retención de las y los profesionales que dichos proyectos requieran.	



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
2025eko ekitaldian, Ekonomia Sustatzeko Sailak aurrera egin du 2023-2027 Esparru Estrategikoaren garapenean, eta, horri esker, besteak beste, proiektu estrategikoak ezartzen eta finkatzen jarraitu du. Esaterako, BAT B Accelerator Tower enpresen ekintzailetza aurreratuaren eta berrikuntzaren azelerazioaren eremuan; EIC, Energy Intelligence Center, erregai berriztagarrien inguruko jarduera ekonomikoa sortzeko eta, aldi berean, industriaren deskarbonizazioan aurrera egiteko; 42 Urduliz Bizkaia, gaitasun digitaletan gaitzeko, edo Bizkaia with the talent, talentua erakarri, garatu eta fidelizatzeko lankidetzak publiko-pribatuko hainbat ekimenekin. Berebat, urrats nabarmenak egin dira BIQAIN Bizkaia Quantum Advanced Industries eta Bilbao Bizkaia ikus-entzunezko huba garatzeko. Lurraldeen arteko orekaren arloan, industrialdeen programaren jarduera nabarmen handitzea lortu da; horrek bide ematen du jarduera ekonomikoko espazioak hobetzeko, eta, ondorioz, industrialde horietan dauden enpresek posizio hobea erdiesteko. Ekonomia Sustatzeko Sailaren ustez, emakumeen eta gizonen berdintasuna talentuaren aldeko konpromisoa da, enpresen lehiakortasun-faktorea eta gizarte berdinzaleagoa eraikitzeko prozesua, bai orainaldirako, bai eta, gure nerabe eta gazteentzat erreferenteak sortzeko esker, etorkizunerako ere. Hori dela eta, hainbat jarduera egiten ditu enpresa, entitate eta kide anitzeko ordezkaritza-organoetan emakumeen presentzia bultzatzeko, emakume ekintzaile berrien gaikuntza eta sareen sorrera garatu eta bultzatzeko, bai eta behatoki bat bultzatzeko ere, emakumeek enpresaren munduan duten benetako egoerari buruzko informazio argia eta egiaztatua izateko aukera emango duena. Bestalde, tokiko merkataritzan jarduera espezifiko bat egiten ari gara, eremu hori oso feminizatuta baitago, sektore horretako emakume enpresariak ahaldundu, agerian jarri eta euren balioa handitzearen.		En el ejercicio 2025, el Departamento de Promoción Económica ha avanzado en el desarrollo del Marco Estratégico 2023-2027 lo que ha permitido que, entre otras actuaciones, haya continuado la implementación y consolidación de proyectos estratégicos tales como BAT, B Accelerator Tower en el ámbito del emprendimiento avanzado y aceleración de la innovación en las empresas, EIC, Energy Intelligence Center, para generar actividad económica en torno a los combustibles renovables al mismo tiempo que se avanza en la descarbonización de la industria, 42 Urduliz Bizkaia, para la capacitación en competencias digitales, o Bizkaia with the talent con múltiples iniciativas en colaboración público privada para la atracción, desarrollo y fidelización del talento. Asimismo, se han dado pasos significativos en el desarrollo de BIQAIN, Bizkaia Quantum Advanced Industries y en el Hub Audiovisual Bilbao Bizkaia. En el área de equilibrio territorial, se ha logrado un notable incremento de la actividad del programa de polígonos industriales, lo que posibilita la mejora de espacios de actividad económica y, en consecuencia, un mejor posicionamiento de las empresas ubicadas en estos polígonos. El Departamento de Promoción Económica entiende la igualdad de mujeres y hombres como un compromiso por el talento, un factor de competitividad de las empresas y un proceso en la construcción de una sociedad más igualitaria, tanto para el presente como, gracias a la generación de referentes para nuestras adolescentes y jóvenes, para el futuro. Por este motivo, desarrolla actuaciones orientadas a impulsar la presencia de mujeres en las empresas y entidades, así como en órganos de representación colegiados, a desarrollar e impulsar la capacitación de nuevas emprendedoras y la generación de redes y al impulso de un observatorio que permita contar con información clara y contrastada sobre la situación real de las mujeres en el mundo de la empresa. Por otra parte, se desarrolla una actuación específica en el comercio local, un ámbito ampliamente feminizado, con el objetivo de empoderar, visibilizar y valorizar a las mujeres empresarias de este sector.



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
2026an 2023-2027 Esparru Estrategikoa garatzen jarraituko dugu, bost ardatz estrategikoetan lan eginez:		En el 2026 se continuará con el desarrollo del Marco Estratégico 2023-2027 trabajando en sus cinco ejes estratégicos:
1. Bizkaia, talentuaren aldeko konpromisoa	1. Bizkaia, Compromiso por el Talento	
Bizkaiak eta Euskadik, Europako beste eskualde aurreratu batzuek bezala, erronka demografikoari egin behar diote aurre, horrek eragina baitu lurraldeko industriari eta zerbitzu aurreratuetan. Bizkaiak industriaren eta zerbitzu aurreratuen aldeko apustua egiten duen lehiakortasun- eta gizarte-ongizateko eredua duenez, ezinbestekoa da STEM talentuaren garapena, fidelizazioa eta erakarpena modu sistemikoan eta lurraldeko eragile enpresarial, akademiko eta instituzionalekin lankidetzan lantzea, bereziki STEM talentua.	Bizkaia y Euskadi, como otras regiones europeas avanzadas, se enfrentan al reto demográfico afectando a la industria y los servicios avanzados del Territorio. En tanto que Bizkaia presenta un modelo de competitividad y bienestar social que apuesta por la industria y los servicios avanzados, resulta crítico abordar de manera sistémica y en colaboración con agentes empresariales, académicos e institucionales del Territorio el desarrollo, fidelización y atracción de talento, especialmente del talento STEM.	
2026an "Bizkaia with the Talent" izeneko lankidetz-estrategikoa hedatzen jarraituko da sektoreko eragileekin adostutako Konpromisoen Dekalogoaren esparruan: prospektiba; sentsibilizazioa; STEM bokazioak; <i>skillinga</i> , <i>reskillinga</i> eta <i>upskillinga</i> ; konpetentzia digitalen <i>huba</i> ; monitorizazioa; <i>talent strategy & employer branding</i> ; ETEak; nazioarteko presentzia eta <i>place branding</i> , eta palanka bideratzaileak. Dekalogo horren esparruan, proiektu zehatz ugari bultzatzen dira; besteak beste:	En el ejercicio 2026 se continuará desplegando la estrategia colaborativa denominada "Bizkaia with the Talent" en el marco, consensuado con los agentes del sector, del Decálogo de Compromisos: prospectiva; sensibilización; vocaciones STEM; <i>skilling</i> , <i>reskilling</i> y <i>upskilling</i> ; hub de competencias digitales; monitorización; <i>talent strategy & employer branding</i> ; pymes; presencia internacional y <i>place branding</i> ; y palancas facilitadoras. En el marco de este decálogo se impulsa una amplia batería de proyectos concretos, entre los que se encuentran:	
• STEM bokazioak eta enpresen lehiakortasunerako beharrezkoak diren gaitasun erabakigarriak bultzatzeko ekimen berritzaileak (prestakuntzakoak, lehiaketak, etab.). • Enpresei eta pertsonen zuzendutako laguntza-programak, talentua garatzea, fidelizatzea eta erakartzea helburu dutenak. • Nazioarteko talentua erakartzea erraztuko duen ostalua garatzea, Zorrotzaurren Talent House bat irekiz. • Talent Office bat abian jartzea, lurraldera prestakuntza espezifikoak jasotzeko edo lan egiteko hurbiltzen direnei beharrezko izapide guztiak errazteko.	• Iniciativas innovadoras (de formación, concursos, etc) de impulso a las vocaciones STEM y de competencias críticas necesarias para la competitividad de las empresas. • Programas de ayuda dirigidos a las empresas y a las personas, que tengan como objetivo desarrollar, fidelizar y atraer talento. • Desarrollo de alojamiento que facilite la atracción de talento internacional con la apertura de un Talent House en Zorrotzaurre. • Poner en marcha un Talent Office que facilite todas las tramitaciones necesarias a personas que se acerquen al Territorio para adquirir formación específica o trabajar.	



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
42 Bizkaia bezalako ekimenak sendotzea eta hazten laguntzea, eta skilling, reskilling eta upskilling ekimen berriak garatzea STEM gaietan eta, batez ere, digitalizazioarekin lotutako eremuetan. - Enpresei laguntzea, bereziki ETEei, talentuaren fidelizazioarekin eta erakarpenarekin lotutako emaitzak hobetzeko aukera emango dieten employer branding estrategiak garatzeko. - Bizkaiko Place Branding Estrategia garatzea. - Bizkaia gaitasun digitalen hub gisa kokatzea ahalbidetuko duten prestakuntza teknologikoko proiektu bereizgarriei laguntzea.		- Consolidar y hacer crecer a iniciativas como 42 Bizkaia y desarrollar nuevas iniciativas de skilling, reskilling y upskilling en temáticas STEM y prioritariamente en ámbitos vinculados a la digitalización - El apoyo a empresas, priorizando a las pymes, para que desarrollen estrategias de employer branding que les permita mejorar sus resultados relacionados con la fidelización y la atracción de talento. - Desarrollo de la Estrategia de Place Branding para Bizkaia. - Apoyar proyectos formativo-tecnológicos diferenciales que permitan posicionar Bizkaia como un hub de competencias digitales
Era berean, jarraituko da arreta berezia jartzen emakumeak enpresan, zientzian eta teknologian duen zeregina indartzeko. Horretarako, jarduketak egingo dira helburu hauek betetzeko: - Emakumeek enpresetan duten presentziaren eta ekonomiari eta aberastasun-sorkuntzari egiten dioten ekarpenaren balioa nabarmentzea. - Emakumeek zientzian eta teknologian duten presentzia eta arlo horiei egindako ekarpena agerian ipintzea. - Lurraldeko ekonomiaren, teknologiaren eta ikerketaren arloetan, emakumeen presentzia publikoa eta emakumezko erreferenteen sorrera sustatzea. - Emakume enpresaburu, ekintzaile eta zuzendarien arteko lankidetzak sortzea sustatzea. - Emakumeek gidatutako ekintzailetzaren eta enpresen behatokiari sostengua ematea, politika publikoak diseinatzeko eta garatzeko oinarritzko tresna gisa.		Asimismo, se continuará prestando especial atención a la mujer en la empresa, en la ciencia y en la tecnología, para lo que se desarrollarán actuaciones con el objetivo de: - Poner en valor la presencia de las mujeres en la empresa, y su contribución a la economía y a la generación de riqueza. - Visibilizar la presencia y contribución de la mujer en la ciencia y la tecnología. - Promover la presencia pública de las mujeres y la generación de referentes femeninos en los ámbitos económico, tecnológico e investigador del Territorio. - Potenciar la generación de redes de colaboración entre mujeres empresarias, emprendedoras y directivas. - Apoyar el Observatorio de emprendimiento y empresas lideradas por mujeres, como instrumento básico para el diseño y desarrollo de políticas públicas.



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Genero-ikuspegia txertatzea Ekonomia Sustatzeko Sailak egiten dituen jarduketa guztietan, bai diseinuan, bai ezarpenean.		Incorporar la perspectiva de género en las diferentes actuaciones que desarrolla el Departamento de Promoción Económica tanto en su diseño como en su implementación.
2. Ekintzailletza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren eragile gisa	2. Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia	
Bizkaiak lurraldean garatzen diren ekimen ekintzaile berritzaileen kopurua eta kalitatea handitzearen aldeko apustua egiten du, hazteko eta enplegua sortzeko ahalmenari dagokionez, enpresa-sarea behar bezala berritzen dela bermatzeko, Europa mailan abangoardia teknologiko eta lehiakorrean mantentzearen. Bereziki beharrezkoak izango dira eremu teknologikoetan garatuko diren eta lurraldeko sektore estrategikoen erronkei erantzungo dieten enpresa-proiektu berriak. Helburu horrekin, honako jarduketa hauek garatuko dira:	Bizkaia apuesta por incrementar la cantidad y la calidad de las iniciativas emprendedoras innovadoras que se desarrollan en el Territorio, en términos de potencial de crecimiento y creación de empleo, con el objetivo de garantizar una renovación adecuada del tejido empresarial, mantener nuestra economía en una posición en la vanguardia tecnológica y competitiva a nivel europeo. Especialmente necesarios son los nuevos proyectos empresariales que se desarrollen en ámbitos tecnológicos y que den respuesta a los retos de los sectores estratégicos del Territorio. Con este objetivo se desarrollarán las siguientes actuaciones:	
- Ekintzailletza aurreraturako zerbitzuen eta laguntzen eskaintza integrala garatzea, ekintzaileei eta ekintzailletza-proiektu aurreratu eta berritzaileak dituzten startupek programa, zerbitzu, finantzaketa eta ekimen bereizgarrien ibilbide osoa eskainiz. Ibilbide hori balio-proposamen bereizgarriak taxutzen, kalitatezko enpleguak sortzen eta enpresak hazten laguntzeko diseinatu da, eta nazioarteko enpresa-proiektuak erakartzeko trakzio-gaitasuna du. - BAT B Accelerator Tower sendotzea, nazioarteko ekintzailletza-zentro handietako bat izan dadin, startupak, korporazioak, inbertitzaileak, zentro teknologikoak, unibertsitateak eta entitate publikoak konektatzen dituen ekosistema bat garatzeko. Nazioarteko erreferentzia diren ekintzailletzakako beste nodo batzuekiko konexioak indartuko dira, lurraldera startup berriak erakartzeko, BATeko startup berritzaileen hazkundera bizkortzeko eta lurraldeko erreferentziatzeko enpresen berrikuntza	- Desarrollo de una oferta integral de servicios y ayudas al emprendimiento avanzado; ofreciendo un itinerario completo de programas, servicios, financiación e iniciativas diferenciales a las personas emprendedoras y startups con proyectos de emprendimiento avanzado e innovadores. Itinerario diseñado para contribuir a la definición de propuestas de valor diferenciales, a la creación de empleos de calidad y al crecimiento de las empresas y con capacidad tractora para la atracción de proyectos empresariales internacionales. - Consolidación de BAT, B Accelerator Tower, como uno de los grandes centros internacionales de emprendimiento en el que se desarrolla un ecosistema que conecta startups, corporaciones, personas inversoras, centros tecnológicos, universidades y entidades públicas. Se reforzarán las conexiones con otros nodos de emprendimiento de referencia internacional, atrayendo nuevas startups al Territorio, acelerando el crecimiento de las startups innovadoras ubicadas en BAT y fomentando la	



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
sustatzeko berrikuntza irekiaren bidez. Horrekin guztiarekin, Bizkaia ekintzailearen eta berrikuntza irekiaren arloko nazioarteko erreferentzia bihurtzen da.		innovación de las empresas referentes del territorio a través de la innovación abierta. Con todo esto, se sitúa a Bizkaia como un referente internacional en emprendimiento e innovación abierta.
Abian jartzea finantzaketa-sistema erakargarri bat, enpresei hasierako etapetan zein hazkundearen lehenengo faseetan laguntzeko aukera emango duena; horrela, ekintzaileei finantzaketa lortzea zaila egiten zaien espazio bat beteko da. Berebat, badaukagu gizarte-eragina duten enpresa-ekimenak sustatzeko eta finkatzeko finantzaketa, bai eta Crowdfunding Bizkaia izeneko plataforma bat ere, proiektu berriak eta berritzaileak inbertitzaileekin konektatzeko aukera ematen duena.		Despliegue de un sistema de financiación atractivo que permita acompañar a las empresas tanto en sus etapas iniciales como en sus primeras fases de crecimiento; cubriendo, de este modo, un espacio en el que a las personas emprendedoras les resulta complicado acceder a financiación. Asimismo, se cuenta con financiación destinada a la promoción y consolidación de iniciativas empresariales con impacto social, así como con una plataforma, Crowdfunding Bizkaia, que permite conectar proyectos emergentes e innovadores con personas inversoras.
3. Industria eta zerbitzu aurreratuak: lehiakortasun jasangarriaren aldeko apustu indartua		3. Industria y servicios avanzados: una apuesta reforzada por la competitividad sostenible
Berrikuntzaren, nazioartekotzearen eta lankidetzaren aldeko apustua egiten duten enpresak edukitzea funtsezkoa da lurraldearen eta bizkaitarren ongizaterako. Lurralde berritzaile batek enpresa industrial eta zerbitzu aurreratuen enpresa lehiakor eta jasangarriak behar ditu, digitalizazioaren aldeko apustua lehenetsiko dutenak eta deskarbonizazioan eta emisio-murrizketan aurrera egingo dutenak. Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu du helburu horiek lortzen laguntzeko erronka, baldintza bideratzaileak sortuz eta enpresen eskura zenbait laguntza eta zerbitzu jarritz:		Contar con empresas que apuesten por la innovación, la internacionalización y la cooperación, es clave para el bienestar del Territorio y las personas de Bizkaia. Un territorio innovador precisa contar con empresas industriales y de servicios avanzados, competitivas y sostenibles, que prioricen la apuesta por la digitalización y avancen en la descarbonización y en la reducción de emisiones. La Diputación Foral de Bizkaia asume el reto de contribuir a la consecución de estos desafíos generando condiciones facilitadoras y poniendo a disposición de las empresas diferentes ayudas y servicios:



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
- Enpresen lehiakortasuna bultzatzeko programa, zerbitzu eta ekimenen ibilbide osoa, gure ETEen berrikuntza sustatzeko, eta prozesuen eraginkortasuna hobetzeko proiektu berritzaile gehiagoren garapena bultzatzeko, eta zerbitzu/produktu berriak garatzea, gure ETEen nazioartekotze handiagoa bultzatzeko eta enpresa-lankidetzak sustatzeko enpresa-erakundeen, klusterren eta bitarteko eragileen bidez. Era berean, pertsonak erakundeen erdigunean jartzera bideratutako programak garatzen ari dira, enpresak sentibilizatuz eta laguntza-programak eskainiz pertsonari garrantzi handiagoa emango dion enpresa baterantzko eraldaketan, talentua bertan errotzea eta talentu berria erakartzea ahalbidetuz. Gainera, enpresa kontsolidatuentzako finantzaketa publikoko sistema bat ere badago. - Bikaintasun lehiakorrek eta garapen teknologikoko zentroen sare bat lurraldean: Energy Intelligence Center, Bizkaia Quantum Industrial Hub, Enkarterriko Bioekonomia Poloa, Punta Zorrotzako ikus-entzunezko Huba, Global Smart Grids Innovation Hub, Bike Intelligence Center, AIC- Automotive Intelligence Center, CFAA- Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa, NIC-Nagusi Intelligence Center. - ETEei laguntzea, bai trantsizio energetiko eta ekologikorako estrategia diseinatzen eta garatzen, bai estrategia digital integral bat ezartzen. Aurreko ekitaldietan hasitako lanarekin jarraituz, indartu egingo dira enpresa txiki eta ertainei zuzendutako programak, zeinak helburu duten trantsizio digitalean aurrera egitea, adimen artifiziala txertatzea eta hainbat sektoretan teknologia kuantikoak irekitzen ari diren aukerak aprobetxatzea. Era berean, Bizkaiko ETE industrialetan deskarbonizazioa eta jasangarritasuna bultzatuko dira, ETE horiek ahalik eta ingurumen-inpakturik txikieneko ekoizpen-eredu baten alde egin dezaten.		- Un itinerario completo de programas, servicios e iniciativas de apoyo a la competitividad empresarial-que fomenten la innovación entre nuestras pymes, que impulsen el desarrollo de más proyectos innovadores para mejorar la eficiencia de los procesos y el desarrollo de nuevos servicios/productos, que promuevan una mayor internacionalización de nuestras Pymes y que fomenten la cooperación empresarial a través de las organizaciones empresariales, clústeres y agentes intermedios. Asimismo, se desarrollan programas dirigidos a poner a las personas en el centro de las organizaciones, sensibilizando a las empresas y ofreciéndoles programas de apoyo en su transformación hacia una empresa más orientada a las personas, posibilitando arraigar y atraer talento. Además, se cuenta con un sistema de financiación público orientado a empresas consolidadas. - Una red de centros de excelencia competitiva y desarrollo tecnológico en el Territorio: Energy Intelligence Center, Bizkaia Quantum Industrial Hub, Polo de Bioeconomía de Enkarterri, Hub Audiovisual en Punta Zorroza, Global Smart Grids Innovation Hub, Bike Intelligence Center, AIC- Automotive Intelligence Center, CFAA, Centro de Fabricación Avanzada en Aeronáutica, NIC-Nagusi Intelligence Center. - Un apoyo a las PYMEs tanto en el diseño y desarrollo de su estrategia de transición energética y ecológica como en la implantación de una estrategia digital de carácter integral. Continuando con el trabajo iniciado en ejercicios anteriores, se reforzarán los programas dirigidos a las pequeñas y medianas empresas para avanzar en la transición digital, la incorporación de la inteligencia artificial y para aprovechar las oportunidades que van abriendo las tecnologías cuánticas en diferentes sectores. Asimismo, se apoyará la descarbonización y la sostenibilidad en las pymes industriales de Bizkaia de manera que puedan optar por un modelo productivo de mínimo impacto ambiental.



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
4. Bizkaia orekatua eta kohesionatua	4. Bizkaia equilibrada y cohesionada	
Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Programaren lehentasunetako bat Bizkaia bezalako lurralde anitzean aukera-berdintasuna bermatzea da. Lurralde lehiakorra, orekatua eta kohesionatua behar dugu, edozein pertsonak edo erakundek aukera eta zerbitzu berberak izan ditzan, bizi den edo bere jarduera garatzen duen lekua edozein dela ere. Bizkaiko udalerri eta eskualde guztiak aukeragune izan behar dira, beren lehiakortasuna hobetzeko eta beren indarguneak, aktibo bereizgarriak eta kapitala (fisikoa, naturala, giza kapitala, soziala eta instituzionala) aprobetxatzeko, garapen ekonomiko jasangarrirako aukerak, kalitatezko enplegua eta ongizatea sortzeko. Horretarako, honako ekimen hauek jarriko dira abian: - Jarduera ekonomikorako kalitatezko gune lehiakorrek sustatzeko funtsa: Ekogarapen Zentroa Durangaldean, Elkartegia Lea Artibain, teknologia-enpresentzako eta zerbitzu aurreratuentzako gune berria Zorrotzaurren, Bizkaiko Teknologia Parkeko campusen garapenean aurrera egiteko (Leioa, Zamudio-Derio, Abanto Zierbena-Ortuella, Bilbo) eta industria-enpresentzako eta zerbitzu aurreratuentzako beste gune batzuk bultzatzeko Bizkaiko beste eskualde batzuetan. - Bizkaiko udalerri eta eskualdeen lehiakortasuna bizkortzea, eskualdeko lehiakortasuna bultzatzeko Bizkaia Orekan Sakonduz sarea indartuz lurralde-lehiakortasuna bultzatzeko ekosistemak sortzearen bidez, tokiko eta udaleko eragileen konpromisotik abiatuta, garapen ekonomiko jasangarriko baldintzak eta aukerak sortzeko estrategiak diseinatzeko eta ezartzen lagunduz, eta trazio-izaerako proiektu estrategikoak garatuz eta abian jarriz.	Garantizar la igualdad de oportunidades dentro de un territorio tan diverso como es Bizkaia es una de las prioridades del Programa de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia. Necesitamos un territorio competitivo, equilibrado y cohesionado, donde cualquier persona u organización tenga acceso a las mismas oportunidades y servicios, independientemente de donde viva o desarrolle su actividad. Necesitamos que todos los municipios y comarcas de Bizkaia sean espacios de oportunidad, mejoren su competitividad y aprovechen sus fortalezas, activos diferenciales y capital (físico, natural, humano, social e institucional) para generar oportunidades de desarrollo económico sostenible, empleo de calidad y bienestar. Para ello, se pondrán en marcha las siguientes iniciativas: - Un Fondo para la promoción de espacios de calidad competitivos para la actividad económica: Ekogarapen Zentroa en Durangaldea, Elkartegi en Lea Artibai, nuevo espacio para empresas tecnológicas y de servicios avanzados en Zorrotzaurre, para avanzar en el desarrollo de los distintos campus del Parque tecnológico de Bizkaia (Leioa, Zamudio-Derio, Abanto Zierbena-Ortuella, Bilbao), e impulsar otros espacios para empresas industriales y de servicios avanzados en otras comarcas de Bizkaia. - Aceleración de la competitividad de municipios y comarcas de Bizkaia reforzando red Bizkaia Orekan Sakonduz de impulso a la competitividad comarcal con la creación de ecosistemas para el impulso de la competitividad territorial, desde el compromiso de los agentes locales y municipales, el apoyo al diseño e implantación de estrategias para la generación de condiciones y oportunidades de desarrollo económico sostenible y el desarrollo y puesta en marcha de proyectos estratégicos con carácter tractor.	



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
- Bizkaiko tokiko merkataritza txikiari laguntzea, merkataritza-elkarteekin harreman egonkorak mantenduz, tokiko merkataritzaren digitalizazioa bultzatuz, profesionalak joera eta gaitasun giltzarrietan trebatuz sektorearen etorkizuna finkatzeko, kontsumitzaileen behar eta itxaropenetara egokituta. Bizkaiko merkataritza txikian emakumeen lidergoa ikusarazi eta bultzatzeko hasitako lanarekin jarraitzea. - Bizkaiko eskulangintzaren berrikuntzari eta dinamizazioari laguntzea, artisautza jarduera profesional gisa sendotzeko, egindako eskulanen kalitatea bultzatuz eta ikuspegi berritzaileak sustatuz, trebetasun eta negozio-eredu berriak garatzearen eta ezagutza eta esperientziak trukatzearren bitartez. “Bilbo efektua” zabaltzea, itsasadarraren inguruko trakzio-proiektuak identifikatuz. Aktiboki parte hartzen da eskualde hauen eskualdeko plan estrategikoetan: Enkarterri, Ezkerraldea-Meatzaldea, Busturialdea-Urdaibai, Debabarrena (Mallabia eta Ermua barne) eta Aiaraldea (Bizkaiko udalerri hauek barne: Arakaldo, Arrankudiaga, Urduña eta Orozko). Plan horien helburua da kasuan kasuko diagnostikoetan detektatutako beharrezanez erantzutea proiektu eragile eraldatzaileen bidez. 5. Bizkaia irekia eta erakargarria Bizkaiko Foru Aldundiak nazioartean ezaguna eta lurralde lehiakorra, kohesionatua, jasangarria eta ongizate eta bizi-kalitate maila handikoa izateagatik aintzatetsia den Bizkai ireki baten aldeko apustua egiten du. Aukera handiko beste eskualde eta geografia batzuekin, erreferentziazko nazioarteko sare eta eragileekin konektaturiko lurraldea.	- Apoyo al pequeño comercio local de Bizkaia, manteniendo relaciones estables con las asociaciones de comercio, impulsando la digitalización del comercio local, la formación de las y los profesionales en tendencias y competencias clave para afianzar el futuro del sector, y el desarrollo de nuevos modelos de negocio atractivos y adaptados a las necesidades y expectativas de las personas consumidoras. Continuar con el trabajo iniciado para visibilizar y potenciar el liderazgo femenino en el pequeño comercio de Bizkaia. - Apoyo a la Innovación y dinamización de la artesanía de Bizkaia, para consolidar la artesanía como actividad profesional, impulsando la calidad de los trabajos realizados y fomentando enfoques innovadores mediante el desarrollo de nuevas habilidades y modelos de negocio y el intercambio de conocimiento y experiencias. - Extensión del “efecto Bilbao” mediante la identificación de proyectos tractores en torno a la Ría. Se participa activamente en el desarrollo de los Planes Estratégicos Comarcales (PECs) de Enkarterri, de Ezkerraldea-Meatzaldea, de Busturialdea-Urdaibai, de Debabarrena (que incluye en Bizkaia a Mallabia y Ermua) y de la comarca de Aiaraldea (que incluye los siguientes municipios de Bizkaia: Arakaldo, Arrankudiaga, Orduña y Orozko). Estos planes tienen como objetivo dar respuesta a las necesidades detectadas en sus correspondientes diagnósticos a través de proyectos tractores transformadores. 5. Bizkaia abierta y atractiva La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una Bizkaia abierta, conocida y reconocida internacionalmente como un territorio competitivo, cohesionado, sostenible y con altos niveles de bienestar y calidad de vida. Un territorio conectado con otras regiones y geografías de oportunidad, con redes y agentes internacionales de referencia.	



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Lanean dihardugu lurraldean eragina izan eta legatua utziko duten ekitaldi estrategikoak erakarri eta egiteko, Bizkaia erreferentziako lurralde bihurtu dadin balio erantsi handiko inbertsioak eta startupak erakarri eta talentua fidelizatu eta erakartzeari dagokionez, hartara Bizkaiko oparotasun jasagarri eta inklusiboan ekarpena egitearren, eta denen ongizatea eta bizi-kalitatea gure enpresa-sarearen dinamismoarekin eta gure nortasunaren, kulturaren eta balioen indartzearekin eta proiektzioarekin uztartzearren. Kontua da konektatzea eta nazioartean presentzia izatea, eta lurraldea inbertitzeko, industriaren eta zerbitzu aurreratuen arloan enpresa-proiektu berritzaileak garatzeko eta bizi-proiektu bat sortzeko lekuri onena gisa kokatzea eta proiektatzea. Horretarako, xede hauetara bideratutako jarduketak egiten ditugu: • Bizkaia kanpoan sustatzea, lehenasunezko geografietan/merkatuetan jarduketak eginez, Bizkaia kanpoan sustatzeko esparru estrategiko bat antolatuz, eragile eta interes-talde nagusiekin partekatua, eta lurraldearen sustapen ekonomikoa bultzatzeko nazioarteko harreman eta konexio sendoak sortuz eta mantenduz. • “Welcome to Bizkaia” ekimena garatzea, Bizkaian jarduketak eginez, Bizkaia nazioarteko eragile eta misioei harrera egiteko, ongi etorria emateko eta Bizkaia aurkezteko. Bizkaiko eragile sozioekonomiko guztiek lagundu dezakete. • Aurreko ekitaldietan kirolen eta enpresaren arloko erreferentziako ekitaldiak egin ostean, nazioartean eragina duten ekitaldiak erakartzen eta garatzen jarraitzea eta ekitaldiok sendotzea; horretarako, antena-lana egitea, Bizkaia ekitaldi estrategiko gehiagoren agertokia izan dadin lortzearen, Bizkaia kanpoan posizionatzeko eta sustatzeko.	Trabajamos para captar y desarrollar eventos estratégicos con impacto y legado para el Territorio y para hacer de Bizkaia un territorio de referencia en la atracción de inversiones de alto valor añadido y de startups y en la fidelización y atracción de talento; contribuyendo, de ese modo, en la prosperidad sostenible e inclusiva de Bizkaia, conciliando el bienestar de todas las personas y la calidad de vida con el dinamismo de nuestro tejido empresarial y el refuerzo y proyección de nuestra identidad, cultura y valores. Se trata de conectar y tener presencia internacional, proyectar y posicionar el territorio como el mejor lugar para invertir, para desarrollar proyectos empresariales innovadores en el ámbito de la industria y los servicios avanzados, y para fraguar un proyecto de vida. Para ello desarrollamos actuaciones orientadas a: • Promocionar Bizkaia en el exterior, con actuaciones en las geografías/mercados prioritarios articulando un marco estratégico para la promoción de Bizkaia en el exterior compartido con los principales agentes y grupos de interés y forjando y manteniendo relaciones y conexiones internacionales sólidas al servicio de la promoción económica del Territorio • Desarrollar la iniciativa “Wellcome to Bizkaia” con actuaciones en el Territorio para la recepción, bienvenida y presentación de Bizkaia a actores y misiones internacionales, abierta a la colaboración de todos los agentes socioeconómicos de Bizkaia. • Continuar y consolidar, tras la celebración en ejercicios anteriores de eventos deportivos y empresariales de referencia, en la senda de captar y desarrollar eventos de impacto internacional desarrollando para ello una labor de antena para lograr que Bizkaia sea el escenario de nuevos eventos de carácter estratégico para el posicionamiento y promoción de Bizkaia en el exterior.	



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
Bizkaira inbertsioak erakartzeko lan aktiboa egitea (Invest in Bizkaia) eta beren enpresa-proiektua Bizkaian garatu nahi duten enpresei lurraldean ezartzeko laguntza-eskaintza integrala eskaintzea, honako hauek barne hartuta: informazioa eta laguntza zerga-gaietan, laguntza ekonomikoak, eta lurraldean finkatzeko eta kokatzeko zerbitzuak.		Desarrollar una labor activa de atracción de inversiones a Bizkaia (Invest in Bizkaia) y ofrecer a las empresas que quieran desarrollar su proyecto empresarial en Bizkaia una oferta integral de apoyo para su el establecimiento en el territorio que incluya información y apoyo en cuestiones fiscales, apoyos económicos, servicios de consolidación y localización en el territorio.
Nabarmendu behar da 5 ardatz estrategiko horiek zeharkakotasunetik eta efizientziarekiko eta efikaziarekiko konpromisotik garatzen direla, sustapen ekonomikoaren arloan pertsonak eta enpresek dituzten beharrei zerbitzu eta konponbide integralak eskaintzeko diseinatutako antolaketa batetik.		El desarrollo de estos 5 ejes estratégicos se realiza desde una organización diseñada para ofrecer servicios y soluciones integrales a las necesidades de las personas y las empresas en el área de promoción económica, desde la transversalidad y el compromiso por la eficiencia y eficacia.
Zeharkakotasuna, kasu bakoitza osotasunean aztertzea ahalbidetzen duena, 5 ardatz estrategikoetako lantaldeek modu koordinatuan jardunez, eta Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako sailekin eta foru sozietateekin lankidetzan, guztien artean erantzun osoa eta integrala eraikitzeko.		Una transversalidad que permite el estudio en conjunto de cada caso, actuando de forma coordinada a los equipos de trabajo involucrados en los 5 ejes estratégicos y colaborando con el resto de Departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus sociedades forales con el objetivo de construir entre todos una respuesta completa e integral.
Balio erantsiko zerbitzuak efizientziaz eta efikaziaz emateko konpromisoa. Horretarako, lankidetzan eta koordinatuta lan egiten da Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikitako foru-sozietate publikoekin (BEAZ SAU, Seed Capital Bizkaia SA eta Crowdfunding Bizkaia), bai eta beste entitate publiko eta pribatu batzuekin ere, zeinekin helburuak eta jarduerak partekatzen baitira gure ekonomia- eta ikerketa-sarearen lehiakortasunaren, jasagarritasunaren eta berrikuntzaren alde; pertsonen gaitasunak hobetzearen eta talentua erakarri eta indartzearen alde, eta garapen orekatuaren eta kanpo-sustapenaren eta -proiektzioaren alde. Horretarako, gardentasuna, hurbiltasuna, osotasuna, zerbitzu publikoaren bokazioa eta halako balioak hartuko dira oinarri, baita lurraldeko enpresa eta erakunde sozioekonomikoei etengabe entzuteko jarrera izateko konpromisoa ere. Koordinatuta eta lankidetzan jardunez beste administrazio publiko batzuekin, entitate publiko eta pribatuekin, garapen-		Un compromiso por una prestación eficiente y eficaz de servicios de valor añadido para lo que se colabora y trabaja de forma coordinada tanto con las Sociedades Públicas Forales adscritas al Departamento de Promoción Económica (BEAZ, SAU; Seed Capital Bizkaia, S.A; y Crowdfunding Bizkaia) como con otras entidades públicas y privadas con las que se comparten objetivos y actividades favorecedoras de la competitividad, sostenibilidad e innovación de nuestro tejido económico e investigador, de la mejora de las capacidades y de atracción y potenciación del talento de las personas, de desarrollo equilibrado y de promoción y proyección exterior; trabajando desde valores como la transparencia, la cercanía, la integridad y la vocación de servicio público y desde el compromiso de mantener una actitud de escucha permanente a las empresas y entidades socioeconómicas de nuestro Territorio. El trabajo coordinado y colaborativo con otras



Sail Txostena - GASTUAK

Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
08. Ekonomia Sustapena 08. Promoción Económica		
agentziekin eta enpresa-elkarteekin, bidea zabaltzen da lasterrago eta efikazia handiagoz aurrera egiten laguntzen duten jarduketak eta estrategiak gauzatzeko.		Administraciones Públicas, con entidades públicas y privadas, con las agencias de desarrollo y con asociaciones empresariales posibilita el desarrollo de actuaciones y estrategias que permiten avanzar más rápida y eficazmente.
2026rako aurreikusitako helburu eta jarduketak gauzatzeko, barne-egitura bat eduki behar da, kudeaketa-prozedurak eta -sistemak egokitzeko, administrazio elektronikoaren alde eginez; arau-aldaketei adi egoteko, prozedura homogeneizatuak ezarri eta sailaren kudeaketa integartzeko, eta interkonexioan eta elkarreragingarritasunean aurrera egiteko.		Para el desarrollo de los objetivos y actuaciones previstas para 2026 es preciso contar con una estructura interna que permite adecuar los procedimientos y sistemas de gestión, apostando por una administración electrónica, estar vigilante a los cambios normativos, establecer procedimientos homogeneizados e integrar la gestión departamental y avanzar en la interconexión e interoperabilidad.
Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduketa guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren politika eta plan zeharkakoak kontuan hartuta egiten dira; besteak beste, Agenda Digitala edo emakumeen eta gizonen berdintasuna.		Todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta las políticas y planes transversales de la Diputación Foral de Bizkaia entre las que se encuentran la Agenda Digital o la Igualdad de mujeres y hombres, entre otras.
